



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko azaroaren 4a

124. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/MOC-00091. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira bularreko minbizi metastasikoaren arreta hobetu dezaten. Osasun Batzordeak onetsia (2. or.).
- 10-22/MOC-00092. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskararen eskakizuna derrigorrezkoa izan dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoan dauden logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- 10-22/CDP-00011. Erabakiak, Nafarroan pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko estrategiei buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitakoak (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/PES-00215. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzarako psikologoak kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00091. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira bularreko minbizi metastasikoaren arreta hobetu dezaten.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko urriaren 26an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako Gobernuak premiatzen dira bularreko minbizi metastasikoaren arreta hobetu dezaten”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen ditu honako hauek egin dituzaten:

1. Bularreko minbiziaren aurkako botika edo tratamendu berrien onespina arindu dezaten, epeak laburtuz eta Europar Batasuneko gainerako herrialdeetakoekin parekatuz.

2. Osasun Sistema Nazionalak eta Nafarroako Osasun Zerbitzuak botika berritzaileak finantzatu dituzaten, kostua-efikazia erlazioa baloratuz, eta erabilera errukiorra kontuan hartuta, gaixoari beste bide batzuetatik lortu ezin diren abantailak dakarzkiotenean.

3. Diagnostiko goiztiarra hobetu dezaten, biomarkagailuen, genetikaren eta bularreko minbizi metastasikoaren biopsia likidoaren bidez.

4. Bularreko minbizi metastasikoarekin lotutako entsegu klinikoak eta ikerketa sustatu dituzaten. Gaixoei entsegu horietan parte hartzeko aukera eman diezaieten, edozein lekutan bizi direla ere, horrek ikerketari ekarpen garrantzitsua egiten ahal dionean.

5. Nazio mailan zein Nafarroako Foru Komunitatean bularreko minbizi metastasikoari buruzko erregistroak egin dituzaten.

6. Zerbitzuen arteko diziplinarteko koordinazioa sustatu dezaten, Nafarroako Osasun Zerbitzuan bularreko minbizi metastasikoa lantzeko eta tratatzeko jardueran.

7. Kasuen kudeaketarako erizaintza ezar dezaten Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Onkologia Medikoaren Zerbitzuan, bularreko minbizi metastasikoa duten gaixoen arreta koordinatzeko.

8. Bularreko minbizi metastasikoa duten gaixoentzako txertatze protokolo espezifiko bat landu dezaten Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

9. Bularreko minbizi metastasikoa duten gaixoen osasun laguntza gizatiarragoa egin dezaten, gaixo horiei behar bezala laguntzeko eta harrera egokia egiteko”.

Iruñean, 2022ko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00092. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskararen eskakizuna derrigorrezkoa izan dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoan dauden logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko urriaren 26an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskararen eskakizuna derrigorrezkoa izan dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoan dauden logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskararen eskakizuna derrigorrezkoa izan dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoan dauden

logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere, euskaldunei osasun-laguntza hori eman ahal izango zaiela bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskararen eskakizuna duen plaza bat sar dezan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko logopedia espezialitaterako Lan Eskaintza Publikoko hurrengo deialdian. Eta bermatu dezan beti egongo dela euskararen behar besteko prestakuntza duen pertsona bat logopeda plaza batean, unitate horretako langileen artean, plaza bere jabetzakoa izan edo aldi baterako kontratatuta egonda ere”.

Iruñean, 2022ko urriaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/CDP-00011. Erabakiak, Nafarroan pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko estratēgiei buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitakoak.

Nafarroan pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko estratēgiei buruzko Osoko Bilkura monografikoak, 2022ko urriaren 28an egindako bileran, honako erabaki hauek onetsi zituen.

Argitara daitezela agintzen dut, Legebiltzarreko Erregelamenduari 114. artikuluan eza-ritakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakiak, Nafarroan pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko estratēgiei buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitakoak

Lehenengoa.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

1. Zerga-erreforma bat onetsi dezan, aurrekoetan bezalaxe, aurrerapausoak eman daitezkeen gure zerga-sistemak duen diru-bilketarako ahalmena eta birbanatze-ahalmena handitzeko. Eta, bidenabar, epe ertain eta luzerako jarduketaren plan fiskal bat ezarri dezan, zerga-pizgarrien eta adituen gomendioen analisia abiapuntu hartuta, aukera emanen duena zerga-sistema bidezkoagoa eta solidarioagoa taxutzeko eta gizarte berdinzaleago baterantz aurrerapausoak emateko.

2. Nafarroako Enplegu Zerbitzua aldatzen eta modernizatzen jarrai dezan, pertsona eta enpresendako erreferentziazko zentro bihurtu eta gizarteratzeko zuzendaritza nagusiarekin egiten den elkarlana finkatze aldera.

3. Egoera ahulenean dauden pertsona guztiendako ibilbide pertsonalizatuak berma ditzan, Auna programaren bidez eta prestakuntza, orientazio eta bitartekaritza programa integralak baliatuta.

4. Jarrai dezan apustu egiten hezkuntza publiko indartzearen eta eskola uztea prebenitzeko programen alde, bai eta foru-dekretu berri bat onestearen alde ere, CREENA arautuko duena LOMLOE hezkuntza-lege berriari erantzuteko.

5. Etxebizitza-politiken garapena sendotu dezan, honako hauek xede hartuta: alokairuko etxebizitzaren parke publikoa, arrazoizko prezioan, handitzea; etxebizitza bat edukitzeko eskubide subjektiboaren garapenean sakontzea, horretarako Emanzipa eta David programak indartuta; hutsik dauden ahalik eta etxebizitza gehien merkatuan jartzea Etxebizitza hutsen erregistroaren garapenaren bidez eta etxebizitza-edukitzaile handiekin lankidetzaren hitzarmenak sinatuta Alokairu Poltsan eskuragarri dauden etxebizitzakopurua handitzeko. Era berean, birgaitze-politika irisgarriak garatu ditzan, eraikitako parkeko etxebizitzak energiari dagokionez eraginkorrak eta sozialki jasangarriak izateari begira eraldatze aldera.

6. Koordinazio soziosanitarioa finka dezan historia sozial bateratua garatuta, eta jarrai dezan epe luzeko zainketen sistemaren eraldaketarekin.

7. Neurriak abian jarri ditzan, aurrerapausoak emateko egoera ahulenean dauden pertsonen aisialdira eta kulturara sarbide unibertsal eta inklusiboa izan dezaten.

8. Gure Komunitateko gizarte-zerbitzuak aldatzen jarrai dezan, eta berrikuntzaren aldeko apustua egin dezan antolaketa eta digitalizazio bezainbatean, pertsonetan oinarritutako ikusmolde integral batekin, gizarte-zerbitzuak eraginkorrak egin eta egokiago erantzun diezaieten Nafarroako lurraldean dauden errealitate desberdinei.

Bigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

1. Ahalik eta lasterren egin dezan Nafarroako 2018-2022 eperako II. Gizarteratze Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta, aldi berean, gure Komunitatean gaur egun dagoen egoeraren diagnostikoa egin dezan.

2. Gizarteratze Plan Estrategiko berri bat prestatu dezan, partaide harturik Nafarroako Gobernuaren departamentu guztiak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta gure Komunitateko hirugarren sektorea.

Hirugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

1. Euts diezaien erantzunkidetasun handiagoko gizarte bat eraikitzen laguntzen duten berdintasun-politika publikoei, zeinean zaintza-lanen zamak berdintasun handiagoz banatuko baitira emakumeen, gizonen eta administrazioaren artean.

2. Landa-emakumeen estatutu bat onetsi dezan, abiapuntu harturik gure Komunitateko landa-eskualde desberdinen diagnostiko bat, landa-emakumeen diru-independentsia eta ahalduak sustatuko dituen.

3. Emakumeen enpleguratzea indartzeko neurriak bultzatu; batez ere, laneratze-zailtasun handienak dituzten enpleguratzea lortzekoak (emakume etorkinak edo arrazializatuak, zaharrak, desgaituak, guraso bakarreko familien titularrak eta abar), pobrezia- eta prekarietate-esperezia nabarmenak sortzen baitzaizkie, beren enpleguaren, nazio-jatorriaren, bizitokiaren (landagune/hirigune) eta beste aldagai muntadun batzuen ondorioz.

4. Emakumeen lan-baldintzak hobetu ditzaten, aldi baterakotasuna, lanaldi partzialak eta, oro har, gehienbat haiei eragiten dien lan-prekarietatea murriztuz, arreta berezia jarrita lanbide feminizatu (zaintza, lehenengo sektorea eta abar), zeinek denbora-pobrezia handiagoa eragiten baitute emakumeengan, eta haien lan-ibilbideak tartekakoak eta prekarioak izatea.

5. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikusketazailtzaren genero-ikuspegia hobetu dezan eta areagotu ditzan berdintasun-alorreko lanbide-urratei buruzko arauak betetzeko urratsak.

6. Aldeztu dezan enplegu- eta autoenplegu-sustatzaile diren emakumeen ekintzailtza, arreta berezia jarritz landa-eremuetako eta beherakada demografikoko eremuetako emakumeengan.

7. Genero-ikuspegia txerta dezan pobrezia eta prekarietatearen feminizazioa neurtzeko erabiliko metodologietan, modua izan dezaten emakumeen pobrezia adierazten duten modu bereziak hautemateko, erreparatu ez pobrezia ekonomikoari bakarrik, baizik eta denborarekin, harremanekin eta aitoren sozialarekin zerikusia duen pobrezia ere.

Laugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du:

1. Jarrai dezan neurri ekonomikoak ezartzen, bereziki adingabeei zuzenduak, hala zerga-arinketen nola gizarte-prestazioen bidez, bereziki Errenta Bermatuaren bidez.

2. Hezkuntza-sistema inklusibo baten aldeko apustua egiten jarrai dezan, ekitate-printzipioarekin bat aukera-berdintasunari bide eman eta tresna eraginkorra izan dadin ikasle batzuek pobrezia eta gizarte-bazterketako egoera gainditu dezaten.

Horretarako premiaz du:

– Aniztasunarekiko arreta modu planifikatua garatzea.

– Eskolatze-tasa ezartzen jarraitzea eta hezkuntza-laguntzako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatuagoan duen eragina aztertzea. – Ikastetxe guztiei jarraibide argi eta zehatzak ematea, haiek berandu eskolatzen diren edo sozialki kaltetutako ikasleen errolda egin dezaten, irizpide homogeenekin, haien errealitatea kontu objektiboa izan dadin eta modu ekitatiboan erabaki daitezkeen horietako bakoitzak behar dituen laguntzak eta bitartekoak.

– Berandu eskolatzen diren edo kaltetutako ikasleei laguntzeko neurriak nabarmen handitzea, egungo egoera irauli eta ikasle guztiengana hel daitezkeen.

– Prestakuntza-ikastaroak egitea irakasleekin, hezkuntza-inklusioa eta hezkuntza emozionala errazten duten metodologiak inguruak.

– Jarraitzea bultzatzen eta behar beste finantzatzen eskola-porrotari eta eskola-uzte goiztiarri aurre egiteko programak, hala nola Pro-Educare Hezigarri, Orientaziorako Lurralde Lankidetzarako Programa, Avance izenekoa eta Hezkuntza Aberasgarritasuna (PROA), haien emaitzak ebaluatuta.

– Eginkizunak, harremanak eta bestelakoak aztertzea, Udalek eta Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateek eskola-eragileak eta gizarte- eta kultura-bitartekariak kontratatzeari dagokionez, eta figura hori egonkortzea eta zabaltzea.

3. Behar beste ikaspostu sustatzea eta sortzea baliabide hauetan: PCA zikloak; Oinarrizko Lanbide Heziketa; Profesionaltasun-ziurtagiriak; Lantegi-eskolak eta bestelako hezkuntza-programak; horiek guztiak laneratze aurretikoak eta inklusio-koak, xede dutenak aurretik egindako hezkuntza-prozesuan arrakastarik izan ez zuten nerabe eta gazteak hezkuntza-sistemara itzultzea edo lanbidea aktiboa hastea.

4. Jardunbide egokiak hedatzea eta inguru baztertuak adingabeendako mentoretza programak finkatzea –Urretxindorra Proiektua, esaterako– eskolaz kanpoko esparruan, kultura, kirola edo aisialdia jorratzen duten jardueren bidez.

5. Adingabe eta gazteen migrazio-doluko prozesuetan laguntzeko programak bultzatzea, eta modu egonkorrean ezartzea herritar atzerritarren familiak berriz elkartzeko prozesuetan espezializatutako zerbitzu bat, eta emandako prestakuntza hori hedatzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan, zerbitzu bermatu gisa sartze aldera Gizarte Zerbitzuen Zorroan, hala jasotzen baitu Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko 2017-2023 urteetarako II. Plan Integralak.

6. Hezkuntza-aisialdi komunitarioko programak sustatzea, haur eta nerabeen gizarte- eta harreman-bazterketa prebenitzeko gune pribilegiatu gisa, eta kirol eta aisialditik abiatuta garatzea nerabe eta haurren arteko elkarbizitza-jarduerak eta harremanak, berdintasunez, gizarteratze berdinzaleago bati bide emanen dioten harremanak eta proiektu partekatuak ezartze aldera.

Bosgarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du:

1. Erantzunkidetasuna berma dezan Administrazioen, hirugarren sektorearen eta pobreziako eta gizarte-bazterketako egoeran bizi diren pertsonen artean, neurriak diseinatu eta planifikatzeko, jarraipen- eta hobekuntza-tresnak sortuta eta adostuta.

2. Erantzunkidetasuna berma dezan Administrazioen, hirugarren sektorearen eta pobreziako eta gizarte-bazterketako egoeran bizi diren pertsonen artean, komunikazioa hobetze aldera elkarriketa-espazioak sortuta.

3. Sektoreen arteko ikuspegia txerta dezan pobreziari eta gizarte-bazterketari lotutako politika

eta esku-hartzeen eraginkortasuna identifikatu, hobetu eta testuinguruan jartzeko.

4. Plangintza estrategikoa egiteko metodo ulergarriak eta erabilgarriak erabiltzea susta dezan, gobernantza argi, ulergarri eta demokratiko baten tresna eta prozedurei buruzko prestakuntza sistematikoa emateko inplikaturik dauden eragileei, hirugarren sektoreari eta herritarrei, oro har.

Seigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako programak eta neurriak indartu eta sendotu ditzan, hobekuntzak eginez enplegu-bazterketaren aurkako borrokarako eta kalitatezko enplegua sortzeko baliabideetan, gizarteratze-programetan, etxebizitza duin bat eskuratzeko bermean, osasungintzarako sarbidea eragozten duten oztopoak kentzeko egituretan, bai eta ikasleen eskola-arrakasta eta gizarteratzea xede hartzen dituzten diskriminazio positiboko antolaketa-eta curriculum-neurrietan.

Nafarroako Parlamentuak iritzi oso ona du azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legearen onespenez, zeinaren bidez arautzen baitira gizarteratze-eskubidea eta errenta bermaturakoa, eta haren aplikazioari erabakigarri irizten dio Nafarroan pobrezia astuna borrokatzeko eta murrizteko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du neurriak eta urratsak aktiba, indartu eta sendotu ditzan, inflazio handiaren ondoriozko premia berriei aurre egitekoak.

Zazpigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du lanbide arteko gutxieneko soldata eguneratu dezan, 2022. urteko inflazioaren portzentajearen gutxienez ere.

F saila:
GALDERAK

10-22/PES-00215. Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzarako psikologoak kontratatzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzarako psikologoak kontratatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00215), zeinaren bidez honako informazio hau eskatzen baitu:

“1. Legegintzaldi honetan zenbat psikologo kontratatu dira, Oinarrizko Osasun Laguntzarako iragarritako proiektuarekin alderatuta?

2. Zein egunetan kontratatu da profesional bakoitza, zer osasun-etxetara izan da esleitura, zer osasun-etxeri dago organikoki eta funtzionalki lotuta?

3. Psikologo kliniko ez den profesionalik kontratatu al da?

4. Zein dira hurrengo urratsak proiektu honetan? Zehatz bitez beste osasun-barruti batzuetarako hedapenari buruzko aurreikuspenak eta kronograma.

5. Ba al dago proiektuaren dokumentu estrategikorik? Noiz?

6. Ba al dago deribazio-protokolorik? Zer datatan jakinarazi dira, eta organizazioko zer profesionali?”

Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak honako informazio hau ematen dizu:

Legegintzaldi honetan, Oinarrizko Osasun Laguntzarako psikologoaren proiekturako, bi psikologo kliniko kontratatu dira, eta Burlatako OMZn kontratua duen psikologo kliniko bat esleitu zaio proiektuari.

- Psikologo kliniko bat, aurretik Burlatako OMZn kontratatuta zegoena eta programa horretan lan egiten ari dena 2022ko ekainaren 1etik. Antsoingo Osasun Mentaleko Sektorea osatzen duten oinarrizko eskualdeei atxikita dago: Txantrea, Arrotxapea eta Antsoain. Organikoki eta funtzionalki Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren mende dago.

- Psikologo kliniko bat, programa horretarako kontratatuta 2022ko abuztuaren 1etik. Tuterako Ekialdea eta Tuterako Mendebaldea oinarrizko eskualdeetara atxikita dago. Organikoki Tuterako Kudeatzailetzaren mende dago, eta funtzionalki, Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren mende.

- Psikologo kliniko bat, 2022ko abuztuaren 16tik kontratatuta. Buztintxuriko Osasun Mentaleko Sektorea osatzen duten oinarrizko eskualdeei atxikita dago: Sanduzelai, Buztintxuri, Berriozar eta Orkoi. Organikoki Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzaren mende dago, eta funtzionalki, Osasun Mentaleko Kudeatzailetzaren mende.

Proiektuaren aurreikuspenei dagokienez, ezarpen-prozesuak aurrera jarraituko du. Oinarrizko beste eskualde batzuetara hedatuko da, eta lehen tasuna emanen zaio Lizarrako barrutiari. Kronograma zehaztuko da lurralde-banaketa lehen tasunen eta profesionalak kontratatze auzkeren arabera. Badago proiektuaren dokumentu estrategiko bat, 2022ko apirilaren 21ekoa, baita deribazio-protokoloak ere.

Proiektuaren aurkezpena Oinarrizko Osasun Laguntzako eta Osasun Mentaleko Kudeatzaile-tzetako ordezkariak eta proiektuaren ardura duen psikologoak egin dute. Dozena bat bilera egin dira proiektua aurkezteko, aurrez aurre, jarduera hasi aurreko asteetan, lehenbizi Oinarrizko Eskualde bakoitzeko zuzendariak, eta ondoren oinarrizko osasun laguntzako taldeekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko irailaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna